

TABAKALERA



DEIALDIA ARTISTENTZA- KO LANTEGIA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

CENTRO
INTERNACIONAL
DE CULTURA
CONTEMPORÁNEA

INTERNATIONAL
CENTER OF
CONTEMPORARY
CULTURE

tabakalera.eu



1. AURKEZPENA

Tabakalerak **artistentzako formakuntza-programaren hirugarren edizioa aurkezten du** **esperimentaziorako denbora-espazio tarte gisa**, eraldaketa prozesuak ahalbidetzeko helburuarekin. Denbora batez lan-erritmoetatik eta praktika propiotik atera eta etenaldi bat egitea proposatzen du programak, parte-hartzaile bakoitzak bere ekoizpena azter dezan distantzia hartuta eta baldintzatzaile ezberdinen ikuspuntutik.

Itziar Okariz eta Jon Mikel Euba izango dira tailer hau ematearen arduradunak.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Lantegia artisten arteko elkarrizketa moduan antolatu da, eta lengoia plastikoez zeinuak sortzeko eta horiek eraldatzeko tresna gisa duten espezifikotasunari buruzko gogoeta sustatuko du. Horretarako, artistetako bakoitzak ariketa espezifikoa eskainiko ditu, eta horiek agerian utziko dituzte hala analogiak nola euren ikuskeren ezberdintasunak, praxi artistikoarekin lotutako alderdi teknikoak aztertzea bilatzen duen dinamika baten baitan.

Lantegi honen asmoa da parte-hartzaileei laguntzea euren lan propioa garatzen eta horri buruz hausnartzen. Gogoeta eta autokritika bultzatzeaz gain, norbanakoaren subjektibitatea ahalduntzea, askatasun-maila areagotzea eta lan-motibazioa sustatzea ahalbidetuko duten estrategietan indar berezia jarriko da.

Itziar Okarizek eta Jon Mikel Eubak formakuntza-programa hau elkarlanetik abiatuko dute, baina norberak bere berezitasunak mantenduko ditu, partaideei praktika eta begirada heterogeneoak eskaintze aldera.

3. NORI ZUZENDUTA DAGOEN

Programa hau **sortzeko grina daukan edonori dago zuzenduta**, uneko bere ibilbide profesional eta artistikoa edozein izanda ere, eta helburu du norberaren sorkuntza-prozesuan laguntza eskaintzea. Lantegian parte hartzeko ez da beharrezkoa diziplina zehatzetan esperientzia izatea.



4. PARTE HARTZEA ETA IZEN EMATEA

Itziar Okariz eta Jon Mikel Euba izango dira lantegirako gehienez 15 parte-hartzaile sailkatzearen arduradunak. Deialdia 2019ko apirilaren 15tik maiatzaren 12ra bitartean egongo da zabalik. Maiatzaren 17ean jakinaraziko zaie hautagaiei sailkatuak izan diren ala ez.

5. MATRIKULAK ETA LAGUNTZAK

Sailkatuak izan direnek 100€ ordainduko dituzte formaziorako matrikula gisa. Gehigarri moduan, aukera egongo da Tabakalerak eskainiko dituen zortzi beketako baten laguntza eskaera egiteko. Honek, lantegiak irauten duen egunetan One Shot Tabakalera House-n egonaldiaren erdia ordainduko luke beste erdia izanik laguntza jasotzen duenak ordaindu beharrekoa. Behin betiko tarifak eta aukeran dauden modalitateen azalpenak jarraian ikus daitezke. Laguntza hauen esleipenerako irizpideak eskaeraren ezaugarriak eta izena eman duen pertsonaren baldintzak izango dira.

Honetarako, hiru modalitate ezberdin daude aukeran:

A Modalitatea.

Matrikula ostatu hartze aukerarik gabe. 100€.

B Modalitatea.

Matrikula eta egonaldia uztailean (8tik 26ra). 290€-ko ordainketa.

C Modalitatea.

Matrikula eta egonaldia uztailean eta abuztuan (uztailaren 8tik abuztuaren 29ra). 630€-ko ordainketa.

Aipatutako egonaldi-laguntza horietakoren bat eskatu nahi bada, motibazio gutunean zehaztu behar da eskatutako modalitatea.

6. LEKUA ETA IRAUPENA

Nagusiki Tabakalerako Sortzaileen Guneko Lantegian egingo dira saioak 2019ko uztailearen 8 eta 27 bitartean. Eremu komun honetara sarbidea izateaz gain, hautatutako artisten estudio propio bat izango dute eskura, lantegiak iraun bitartean eta baita ondoren ere, abuztuaren 29ra arte. Bigarren zati hau hautazkoa izanik ere, garrantzitsua da programaren garapenerako.



7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Izen emateak formazio osora joateko eta Tabakalerako ekipamendu eta instalazioen erabilpen arauak errespetatzeko konpromezua dakar berarekin. Tailerraren denbora eta espazio erabilpena honen helburuentzat erabiliko da soilik, ez bestelako proiektuak gauzatzeko.

8. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. CV
2. Motibazio-gutuna
3. Material grafikoa edo lana zein proiektua ilustratzen lagunduko duten beste material batzuk.
4. Egindako lanen 4 irudi edo bideoetara estekak, betiere 3 minutu baino gehiago ez badituzte.

Guztia PDF fitxategi bakar batean jarri beharko da, eta guztira 8 orrialde hartuko ditu, asko jota.

9. DATUAK BABESTEIA

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Tabakaleraren fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau, deialdiaren administrazio-kudeaketako jardunak, fakturazioa eta/edo dokumentazioa kudeatu ahal izateko, eta parte-hartzaileek onartu egin behar dute beren datuak fitxategi horretan sartzea. Horri dagokionez, helbidea honako hau izango da: Tabakalera, Andre zigarrogeak, 1, Donostia.

Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak posta elektronikoko bidez baliatu behar dira; mezu elektronikoa pgaraiakideak@tabakalera.eu -ra bidali, Gaia honakoa duela: "sartzeko baimenak". Mezuarekin batera datuen titularrak sinatutako gutun bat ere aurkeztu beharko da, eta jakinarazpenak jasotzeko helbide bat adierazteaz gain, NAN-aren edo antzeko dokumentu baten kopia ere bidali behar da.

10. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileek Tabakalerako guneetan hartutako irudietan (argazkiak,

TABAKALERA



bideoak, eta abar) ager daitezkeela onartuko dute, gero informazioa emateko edo sustapenatarako erabiltzearen; era berean, erabilera hori baimenduko dute. Hori guztia ohorerako eskubideen aurkako erabilera edo aplikazio oro alde batera utzita.

11. OINARRIAK ONARTZEA

Deialdian parte-hartzeak deialdiaren oinarri hauek onartzea dakar.

Info +:

pgaraikideak@tabakalera.eu

943011311

www.tabakalera.eu